



## HIRIGINTZA

- Udaletxearen zaharberritze-lanak. Plantak dagoeneko emanda daude. Beheko solairuan eta lehen solairuan banaketa-lanak hasita daude. Obra bukatzeko epea abendura artekoa bazen ere, bi hilabeteko atzerapena izan dute, eraikinaren egituraren azterketa-lanak direla eta. Otsailaren bukaerarako lehen fasea bukatua izatea espero da. Bestalde, Espainiako Kultura Ministeritzaren %1eko diru-laguntzetara aurkeztutako proiektua onartu dute, baina garai hauetan dirua lortzea zail ikusten da.



- HAPOaren onarpena. Irailaren 25ean Gipuzkoako Foru Aldundiak behin betiko onarpena eman zion. Honekin batera esan, Artalekuko eremua industriagune bezala izendatzeko arazoak egon direla, eta azkenean, Ingurumen Sailak ez duela onartu, ez baitu begi onez ikusten. Honen aurrean, Udalak lur sail horri eman nahi dion izendapena emateko beste aukera batzuk landu eta garatzeko asmoa du. Arauak urriaren 5ean atera ziren boletinean eta dagoeneko indarrean daude, eta laster aurrez eginda dauden eskaerei erantzuten hasiko gara.
- Etxebizitzak. Hirigintza arauak onartuta daudenez, etxebizitzak egiteko proiektuak lantzen hasiak gara. Eraikitzeko eremu bat aztertzen ari gara, eta gauzak zehazten joan ahala, informatuko zaituztegu.

## HONDAKINEN KUDEAKETA

- Auzoz auzo egindako bileretan, herritarren %55ek parte hartu du, eta oro har erantzuna aldekoa izan da. Gehiengo zabal bat autokonpostagailua jartzeko prest azaldu da. Bestalde, zabor- bilketaren inguruan zalantza eta galdera asko jaso ditugu. Hausnarketa egin eta erantzuten saiatuko gara. Bileretara etorri ezin izan duen herritarrik baldin bada, jar dadila Udalarekin harremanetan.

## URAREN AZKEN ORDAINKETA

- Urrian kobratu den uraren gaineko zerga, 2011 urteari dagokiona eta 2012ko uztaiera artekoa izan da. Hurrengo kobraketa, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak egingo du.

## MOTZEAN

- Espainiako bandera ezartzeko agindua. Espainiako legediak arautzen duenez, espainiar estatuko udaletxe eta administrazio-erakunde guztietan derrigorrezkoa da Espainiako bandera pleno aretoan eta leku ikusgarrian jartzea. Hala egiten ez bada, prozesu judizial bat abiarazten da, eta erakundeek prozesu horretan galtzeko guztiak dituzte, galera ekonomiko handiak tartean direla. Abuztu hasieran iritsi zen Berastegiko udaletxera Espainiako bandera jartzeko jakinarazpena. Lehenago edo beranduago jarri beharra izango da. Hala ere, Udalak herritarrekin batera erantzun nahi dio aginduari, gurea dena aldarrikatuz.



GEUREA IKURRIÑA

- Uholdeak. Gipuzkoako Foru Aldundiak Berastegiko herriari 24.000€ ematea erabaki du iazko uholdeen kalteak konpontzeko.
- Idazkariaren hautaketa- prozesua. Amaitu da eta idazkari postua Pili Garmendiak atera du.
- Aurrekontuaren bilakaera. Irailaren bukaera arteko sarrerak eta gastuak aztertu ondoren, aurreikusitakoa betetzen ari da. Orain arte aurrekontuan jasotzea espero zenaren %70a jaso da eta %68a gastatu. Laster, datorren urteko aurrekontua prestatzen hasiko gara eta horretarako batzorde bat ere egingo da.
- Legealdi hasieran goizetan udaletxera etorri ezin zuten herritarrei, edozein tramite burutzeko, astearte arratsaldeetan bertaratzeko aukera eskaini zitzaizkien. Erantzuna eskasa izan da, eta beraz, hemendik aurrera astearte arratsaldeetan udaletxea ez da irekita egongo.
- Babes Zibileko Taldea berrantolatuko da eta hemendik aurrera Iñigo Gorostartzuk hartuko du ardura.

## KULTURA BATZORDEA

- **2012ko Salontzoak**. Festetako balantzea oso ona izan da. Herritar askok parte hartu du, eta aurrekontua beste urteetan baino txikiagoa izan arren, festetan gozatzeko aukera izan dugu. Bide batez, prestaketa lanetan aritu direnak, eta batez ere, elkarteak, eskertu nahi ditugu. 12.000euroko gastua aurreikusi zen eta 12.224euro gastatu dira.

- Kultur Astea. 2012ko Kultur Astea urriaren 26, 27, 28 eta azaroaren 2, 3 eta 4an izango da. Festetan bezala, Kultur Astea ere aurrekontua murriztu egin da: 4.200€ inguru gastatzea aurreikusten da. Azoka egunak aparteko garrantzia izango du, urtero bezala.

